



DSS2016.EU



ARDORA 2. LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2015-07-15, UZTAILEKO SAIOAREN MEMORIA

SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ *Ekainean jasotako 2016 euroko laguntzetara aurkezteko proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.*
- ▶ *Hautatuko proiektuen onarpena.*
- ▶ *Balorazioak: egunekoa zein orokorra.*
- ▶ *Lan taldearen agurra*

PARTAIDEAK:

-2016 BULEGOTIK: *Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaritza; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna; Pablo Berastegi, 2016 Fundazioko Zuzendaria.*

-ARDORA LAN TALDEA: *10 partaide, 4 emakumezkoak eta 6 gizonezkoak.*

-AZTIKER IKERGUNETIK: *Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Susana Martinez.*



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baita, eta zehazki, Energia Olatuak programara maitzean zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategoria bakarraren arabera:


-2.016€ko 5 proiektu

Lan taldeari esker ona eta agurra/gero artea, 2016 proiektutik: sarrera atala amaitu aurretik, Pablo Berastegik, 2016 Fundazioko Zuzendariak hitza hartu du labur. Aurreko lan taldearekin egin bezala, lehen lan saioa izanik eskerrak eta ongi etorria eman die parte hartzaileei. Eta azpimarratu du lehen taldearekin izandako esperientzia errepikatzea gustatuko litzaiokeela bigarrenarekin ere; esperientzia interesgarri eta polita izan delakoan.



2. IRIZPIDEEN ERREPASOA

Balorazio kuantitatiboak egiteko adostutako irizpideak berriro ere kokatu dira eta errepasatu dira, fitxatan landuko diren orden berdinean:



Horiek kokaturik, gaurko dinamika nola garatu den kokatu da.

ARDORA LAN TALDEA:

Energí olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

3. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Orain arte ARDORA 1 LAN TALDEAK egin duen lan dinamikara egokitu da lan dinamika kuantitatiboa.

Horrela, eta partaide bakoitzak fitxa eskuan duelarik, ariketa egin da. Konpartitutako totalen arabera, emaitza kuantitatiboa behatu da, eta segidan, partaide bakoitzak bere bost gometza banatu ditu gustukoa eta nahi izan dituen proiektuen gainean. Ariketak eginik, jarrian azaltzen da sorturiko emaitza:

	OROTARA PUNTAZIOA PUNTUACION TOTAL	BALORAZIO KUALITATIBOIA/SUBJEKTIBOIA	HAUTATURIKO PROIEKTUAK
OLATU TXIKIAK. / OLAS PEQUEÑAS 2.016 €			
131 Distorsionando Donostia Exposición de cuadros de Josean Olabe	-6, 0, -4, -7, -2	-19	
138 Las artes y la diaspóra vasca	7, 12, 7, 4, 9	39	12
140 Jornadas Sehphe	2, 3, -3, -4, 4	2	
141 Artistei elkarrizketak	0, 1, 1, -1, 4	5	
143 Shop and Roll	8, -2, -8, -1, -5	-8	2
144 Humanopolis	-2, 2, -1, 1, 1, 4	4	2
146 Neskameen inguruko dokumentala	5, 8, 5, 1, 8	29	9
147 Cadáver exquisito en Donostia/ Hilotz mira Donostian	10, 1, -7, 8, 4	16	3+3
148 Arte Urbano Efímero	5, 8, 0, 3, 2	18	5+6
149 Iniciativa "Abelbideak: Transmedia Xperience"	-6, 7, 9, 4, 0	14	2+2
150 China en Donostia	10, 11, -5, -1, -2	13	3+1
151 Donostiako Txinatarren inguruko dokumentala	-2, 9, -2, -1, 5	9	4
152 Instalación en Cristinaenea: Casa de la Lluvia	-5, -3, -6, 4, 1	-9	2
153 Lamiak, film laburra	-7, -5, 0, 0, 6	-6	2
154 Su artifizialak, aretoko erakusketa	-1, -5, 2, 2, 3	1	
155 Su artifizialen inguruko liburua	-4, -10, -5, -4, 3	-20	
156 Los fuegos desde todos los rincones de Donostia.	-3, -7, -3, 1, 2	-10	3
157 Teatro por la salud mental. Teatro en txoko	11, 15, -1, 6, 10	41	15
158 Edozein Donostia	-4, 2, -10, 5, 6	-1	
159 Itxaso Aristizabal Lekuona	-2, 4, 3, -1, 5	9	2
160 Mito o realidad	1, -4, -6, 0, -1	-10	
187 Itsas Zaborra Out	10, -2, -2, 11, 11	28	8
223 Musika de la India/Indiako musika	-4, 3, -10, -5, -9	-25	2
225 Ilustrazioen Enkante Dramatizatua	10, 5, -1, 4, 7	25	2+3

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Behin partaideek haien lehen balorazio kualitatiboa eginik, azpimarratu dira zortzi proiektu. Zehazki, puntuazio altua izateaz gain, hiru gometza baino gehiago jaso dituzten proiektuak azpimarratu dira. Ondorioz, zazpi proiektu geratu dira azpimarraturik. Hortik aurrera izendatu beharreko lehen bostak borobildu dira, honela:

- ▶ **KODEA 138: Las artes y la diáspora vasca.**
- ▶ **KODEA 146: Neskameen inguruko dokumentala.**
- ▶ **KODEA 148: Arte Urbano Efímero.**
- ▶ **KODEA 157: Teatro por la salud mental. Teatro en Txoko.**
- ▶ **KODEA 187: Itsas Zaborra Out.**

Gainerako hirurak, ordenaren arabera adostu behar direnez, taldeko partaide bakoitzari gometza gorri bana eman zaio, bakoitzak hauta zezan lehen ordezeko proiekturako aukera. Ordezkoen emaitza beraz, honela geratu da:

- ▶ 225 KODEA: Ilustratzaileen Enkante Dramatizatua
- ▶ 147 KODEA: Cadáver exquisito en Donostia/Hilotz Mira Donostian
- ▶ 149 KODEA: Iniciativa "Abelbideak: Transmedia xperience"

Beraz, hiru horiek eta orden horretan izendatzen dira, eta aurreko baten batek erretiratuko balu horiek izendatuko dira.






ARDORA LAN TALDEA:


Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015


4. BALORAZIOA:

Lan taldearen lehen saioa izanik, partaide denei eskatu zaie bi galdetegi betetzea:

1. OROKORRA (saioen bidez eboluzioa antzemateko).
 2. SAIOari dagokiona, hots, 2015-07-15 dataren saiokoa.
- a. Galdetegien betetzea dela eta, azpimarratzen da aldiro aztertzen direla puntuazioak eta horien baitan saiaturen ari direla egokitzapenak egiten aldiro.
- b. Aurreko saioetan bezala, talde balorazioa egiteko, hiru koloretako itsas argien bidez posizionatzea eskatu zaie partaideei eta hauxe izan da emaitza:

	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentrazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentrazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentrazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera **Denek** pertsona batek izan ezik hautatu  dute **itsas argi berdea**.

Itsasargi horia  hautatu duen parte hartzaileak, berriz, proiektu bakoitza balore bakoitzaren arabera banan-banan baloratzeak luze jotzen duelako aukeratu du.

5. AGURRA ETA HURRENGO URRATSEN ERREPASOA

Partaideei berriro ere eskertu zaie jarrera irekia eta langilea izan izana. Era berean, gonbidatu zaie lan talde zaharra ezagutzeko aukera izan dute, 20160 euroko laguntzen esleipenean lanean aritu direlako, haiek adierazi dute zein proiektu hautatu den eta zergatik. Horiek horrela, berriro ere harremanetan jarraitzeko asmoa azpimarratuz agurtu dira partaideak.



Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'50etan.

Donostian, 2015eko uztailaren 15ean.